

X. URTEA

29. zenb.

1992 MAIATZA - ABUZTUA

560 pla. - 28 libera



Istorio motzen erabilera komunikatiboa
Euskal kultura euskararen irakaskuntzan
Ama-hizkuntzaren didaktika: derrigorrezko
utopia baten sorrera
Gurutzegramak binaka
Alfabetatzea gauregun
Hizkuntz ariketak aztertzeako markoa
Irakaskuntza elebidunaren zenbait puntu
berrikusiz

ZUTABE

EUSKALDUNTZE - ALFABETATZEAREN ALDIZKARIA

Xedeak

ZUTABE euskalduntze-alfabetatzearen aldizkaria bi eremu horietan dihardutenei edo horiekin lanbidezko loturarik dutenei zuzendua dago, helduen euskara-irakasleei batipat. Lauhilaetekari honek ama-hizkuntza eta bigarren hizkuntzen irakaskuntzarekin zerikusirik duten zientzi arloak ditu berezko esparru (Psikolinguistika, Linguistika aplikatua, Andragogia/Pedagogia, Soziolinguistika) eta hizkuntzen irakaskuntzan/alfabetatze-gaietan teoria, teknika eta ikerketak ezagutaraztea helburu nagusi. **ZUTABE**k teoria aplikatua eta praktikaren arteko oreka lortu nahi du, arestian aipaturiko zientziak eta klaseko mundua uztartzeko zubi izan, aplikatua bait da argitalpenaren orientabidea. Ez da lan makala informazio aberatsa eta nork bere burua hobeto prestatzeko lantresnak eskaintzea eta ideiak elkartrukatzeko eztabaidagune ireki jori eta bizia izatea. Ba, horixe du **ZUTABE**k erronka. Amaitzeko, esan **ZUTABE**ren zuzendaritza ez dela artikuluetan agertzen diren iritzi eta ideien erantzule.

ZUTABEra *lankidetzak*

ZUTABEk gogo onez hartzen ditu helduen euskalduntze eta alfabetatzearen arazoari behar bezala aurre egiteko lagun dezaketek ekarpenak. Bertara bidalitako lanek, aldizkariaren orientabidea gogoan hartuz, zerikusi handia izan behar dute euskalduntze/alfabetatze gintzak egunero eta gertutik bizi dituzten gorabeherekin. Helduen euskalduntze- eta alfabetatze-eremuei buruzko ekarpenak nahiago izan arren, aldizkariak ez ditu inondik ere helduez beste gizataldeekin aritzen direnenak baztertzeko, baldin eta beste egoera ezberdinetan aritzen direnentzat ere baliagarri eta interesgarriak gertatzen badira.

Lanak taxutzerakoan "Artikulugileentzako irizpideak" izeneko idazkia hartu behar da kontuan. Berau urteroko lehendabiziko alean emango da argitara.

ZUTABEk hemendik dei egiten die euskara-arloan lan egiten duten irakasle, hizkuntz eta hezkuntz teknikari, euskara-arduradun eta unibertsitate-alorreko ikertzaileei, aldizkarian esku har dezaten.

Posta

Editorial-gaien inguruko posta eta harpidetzari buruzkoa honako helbide hauetara igorriko da:

•Editorial-gaiak:

ZUTABE
Reina Regente 2-2.a
20003 Donostia
Tlf. (943)291811

•Harpidetza:

HABE
ZUTABE (Harpidetza)
Foruen pasealekua 1, 2.a
20005 Donostia
Tel.: (943) 429120; Fax: (943) 430162

Zuzendaritza

HABEren Glotodidaktika zerbitzua

Koordinazioa

Euskalduntze saila

Zuzendaritza batzordea

Iñaki Aranberri

Lagungarri Pedagogikoen saileko burua

Pello Esnal

Euskalduntze saileko burua

Boni Urkizu

Euskara ataleko burua

Imanol Irizar

HABE Liburutegiko arduraduna

Koordinatzailea

Joanba Bergara

Euskalduntze saila

1992ra *prezioak*

Ale bakoitza: 560 pta.- 28 libera

Harpidetza: 1.300 pta.

Diseinua

Azalak eta atalburuetako ikonoak:

Figueras Design

(Zedro plaza 2, 1. C

20016 - Donostia)

Inprimategia

Estudios Gráficos. Zure

P. Larramendi, 3-2

48012 Bilbo

Legezko Gordailua

SS-550/89

© Autonomi Elkargoko Administrazio Orokorra,
HABE.

I.S.S.N. 0212-5714



Ale honetan

Aurkezpena 1

Gela irekia

- Aitor Etxebarria* Euskaltegiaren arbela eta barnetegitxoa 3
B. Barandiaran/M. G. Larrinaga/M. K. Agirregabiria 3 aurrera 3 atzera 6
Stephen Arnold McNulty/Alison Sykes McNulty Istorio motzen erabilera komunikatiboa 8
Dick Edelstein Nola sartu entzute-ariketak ahozko adierazpenaren lanketan 14

Irakasleak mintzo

- Zutabe* Euskal kultura euskararen irakaskuntzan 22

Beste iturrietatik

- Jean-Paul Bronckart eta Bernard Schneuwly* Ama-hizkuntzaren didaktika: derrigorrezko utopia baten sorrera 32

Mindegi iraunkorra

- Aitor Etxebarria* Itaun taldea 48
Joanba Bergara Prestakuntzarako ihardunbideak-Gurutzegramak binaka 49

Ama-hizkuntza

- Joxe Manuel Odriozola* Alfabetatzea gaur egun 60

Kanpainak

- Jose Luis Gorostidi* Euskaraz Bizi 69

Tarteko hizkuntza

Pello Esnal Oraindik ez dut bikoterik aurkitu 70

Bestelako lankidetzak

Joanba Bergara Hizkuntz ariketak aztertzeko markoa 72
Josu Sierra Orrantia Irakaskuntza elebidunaren zenbait puntu berrikusiz 82
Jordi Roca Atazak norberak sortu 90

Gure mundutxo

- HABE argitalpenak 96
- Beste argitalpenak 96
- Eta beste 97

Liburuak eta aldizkariak

- *Liburuak* 98
 - Maria Jesus Espi* 25 Centuries of Language Teaching (L. G. Kelly) 98
 - Maria Jesus Espi* Social Psychology and Second Language Learning (R. C. Gardner) 98
- *Aldizkariak* 99
 - Imanol Irizar* Aurkibideak 99
 - Imanol Irizar* • *Habe-Liburutegia* 100

ZUTABE

EUSKALDUNTZE - ALFABETATZEAREN ALDIZKARIA



HARPIDETZA-ORRIA

Izen-deiturak:

Kalea:

Zenbakia:

Herria eta PK:

Probintzia:

ZUTABE aldizkaria jaso nahi dut etxean. (Urtean hiru ale: 1.300 pezeta.)
Honela ordainduko dut: Kontu korronte bidez.

Bankua edo Aurrezki-Kutxa:

Sukurtsala:

Zenbakia:

ZUTABE aldizkaria
Foruen pasealekua 1, 2.a
20005 DONOSTIA

Helbide honetara bidali behar da:
ZUTABE aldizkaria
Foruen pasealekua 1, 2.a
20005 DONOSTIA



Aurkezpena

Ohi bezala, luze-zabalera ezberdineko gai ugaziz betea datorkigu 29. ale hau.

- Euskararen erabilera sustatu eta ikasleen jartotasuna landu nahian, Santurtziko Udal Euskaltegian eginiko saioen berri damaigu *Gela irekia* saileko lehenengo artikulua, bi ataletan eman ere. Lehenengoak euskaltegian arbelari buruz eginiko esperientzia motibagarri eta aberasgarria azaltzen digu. Bigarrenak, aldiz, euskaltegiak eraturiko barnetegia du aztergai.

Anitz eta era askotakoak ditugu ikasleen erroreak zuzentzeko teknikak. Saileko bigarren artikulua, hain zuzen ere, horretarako lagungarri izan daitekeen jolasa dakar.

Stephen eta Alison McNulty-k, beren aldetik, ikasgelan narrazio motzak ustiatzeko hainbat iradokizun praktiko ematen digute hiru zatitan banaturik. Lehenengoak ikasleek narrazio motzak irakurtzean aurki ditzaketen zailtasunak ditu aztergai eta klasean literaturaz baliatzeko modu tradizionala eta ikuspegi komunikatiboa erkatzen ditu. Bigarrenak ikuspegi komunikatiboaz baliatzeko istoriorik egokienak zeintzuk diren iradokitzen ditu. Eta azkenekoak horrelako narrazio motzak sartu, ustiatu eta bukatzeko egin daitekeen hainbat ihardun eta ariketa-modu aztertzen du.

Gutiz ezaguna dugu nola ikasle bat(zuk) hizketan ari den (diren) bitartean, besteek arreta galdu eta entzuten ez duten. Edelstein-en artikulua arazo honi nola aurre egin azaltzen digu.

- Zer da euskal kultura? Zein toki behar du izan eta nola txertatu euskara-klaseetan? Hainbat iritzi jaso du ZUTABEk auzi honen inguruan *Irakasleak mintzo* sailean, euskara-irakasle zenbaiten eskutik.
- Didaktika «irakaskuntz egoerari» buruz egiten den diskurtso kritikoa da eta, aldi berean, proposizioak eta berrikuntzak egiteko aribidea. Gaur egun ama-hizkuntzaren didaktikak oso arazo larriak dauzka aurrez aurre. *Beste iturrietatik* saileko artikulua aztergai dituenak.
- Bi artikuluk osatzen dute *Mindegi iraunkorra* saila. «Itaun taldea» izenekoak euskarak euskara-irakasleei maiz askotan dakartzkien buruhauste eta dudar-muda batzuk argitzeko modu bat aurkezten digu.

«Prestakuntzarako ihardunbideak» bildumako hirugarren artikulua Bergararen lana duzu. Bilduma honek, dakizunez, irakasleen prestakuntzarako saioetan inputa edo edukiak lantzeko eskura dauden zenbait prozedurarekin aprobak egiteko egokiera eskaini nahi du. Oraingo honetan, mindegi hau «Gurutzegramak binaka» deritzan teknika jorratzera dago emana.

- Durangoko 26. Euskal Liburu eta Diskoen Azokan euskal alfabetatzeari buruz egin zen mahai-inguruan azaldutakoa jasotzen du *Ama-hizkuntza* saileko artikuluak. Ekitaldi hori honako gai-ardatz hauen inguruan mamitu zen: euskarazko alfabetakuntzaren mugak eta nondik-norakoak; euskarazko alfabetakuntza eta euskal kulturaren zoria; eta euskal alfabetatzearen oinarri-egiturazko arazoak.
- Atarrabiako Paz de Ziganda Ikastolatik iritsi zaigu «Argitxo» ipotx alaia, euskararen erabilpenak bizi duen iluntasunari «argia» ekartzera. *Kanpainak* sailean azaltzen zaigunez, haurren artean euskararen erabilpena indartu eta gauzatzeko jarri dute martxan «Euskaraz Bizi» proiektua.
- «Laguna» eta «bikotea»ren arteko aldeak islatu nahi ditu *Tarteko hizkuntza* saileko lanak, modu umoretsuan islatu ere. Tarteko hizkuntzaren aldeak hobeto ezagutzea du xede sailak, eta ez inondik inora hutsari edo hutsa egiten duenari irri egitea.
- Ugari dira oso eskura ditugun hizkuntz ariketak, askotarikoak gainera izaeraz eta tankeraz. *Bestelako lankidetzak* saileko lehenengo artikuluak arlo zabal bezain korapilotsu horren azterketa bideratzeko marko bat eskaintzen digu, aintzakotzat hartu beharreko zenbait ildo edo oinarri biltzen duena. Hizkuntz ariketak *hautatu/birmoldatu/sortu* eginkizunak burutzeko eta, orohar, egungo ariketen esparru naharoan eroso mugitu eta norabidea ez galtzeko lagungarri izan daiteke artikulua.

Irakaskuntza elebidunak Euskal Komunitate Autonomoan hamar urte paseak bete ditu jada, eta badaude, Josu Sierraren aburuz, berriro aztertzea merezi duten zenbait puntu, hauexek besteak beste: esposizio-denboraren garrantzia H₂ baten eskuratze-prozesuan; ikasgelako interakzioaren papera; murgilketa partziala; eta adinaren auzia.

Hainbatetan irakaslea eta ikasliburua izan dira atazak proposatu dituzten ia-ia iturri bakarrak. Ez ote dute ikasleek gai honetan zer iradokirik? Ikasleak ikasgelako lanean bere atazak iradoki eta burutzeko jarrera aktiboa izan dezan ingurugiro egokia nola eskaini da saileko azken artikuluak jorratzen duen gaia. Egileak azaltzen digunez, ikasleek, ikasgelako lanaren antolaketan, beregain hartu behar dute berek edo ikaskideek burutu beharko dituzten ekintza batzuk moldatzeko ardura.

* * *

Horrezaz gain, ohi den bezala, beste bi sail dakartza aleak, *Gure mundutxoa* eta *Liburuak eta aldizkariak* deritzatenak.